

**COVID-19AREN
KRISIAK**
EGUNEROKO
BIZITZAN IZANDAKO
ERAGINA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

COVID-19AREN KRISIAK EGUNEROKO BIZITZAN IZANDAKO ERAGINA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAIALA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Vitoria-Gasteiz, 2022

Argitaraldia:

1.a, 2022ko iraila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak

Internet:

www.euskadi.eus

Egilea:

Matia Institutuak egina:

M^a Ángeles Molina; Sara Marsillas eta Elena del Barrio (Kordinazioa)

Landa lana:

Demométrica

Diseinua eta Maketazioa :

Komunikazio Zuzendaritza

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak

Edukia

Aurkezpena	7
Helburuak	9
Txosten Honen Helburuak	10
Metodologia	11
Profil Soziodemografikoa	12
Emaitzak	15
Aldaketak osasunean	15
COVID-19aren kasu positiboak	15
Aldaketaren pertzepzioa osasun egoeran	16
Eguneroko bizitzako jardueretarako (EBJetarako) laguntzak	17
Estali gabeko arreta premiak (medikua eta dentista)	18
Sare soziala	19
Aldaketa bizikidetza moduetan	19
Aldaketak beste pertsona batzuekiko harremanetan	20
Jarduera	22
Aldaketak zaintzan	22
Eguneroko jarduera	24
Gogobetetasuna eta bakardade sentimendua	32
Gogobetetasuna	32
Bakardade sentimendua	33
Funtsezko mezuak	35

Aurkezpena

Euskadin 55 urte edo gehiago dituzten pertsonen bizi baldintzei buruzko berariazko inkesta bat egin du Eusko Jaurlaritzak, eta, horri esker, aukera izan du adineko pertsonen errealitateari buruz egindako aurreko ikerkete i jarraipena emateko. Aurreko azterlanak lagungarriak izan dira lurraldeko zahartze prozesuaren berezitasunetara egokitutako planak, proposamenak eta estrategiak lantzeko. Azterlan horietako lehena 1993koa da (Adinekoen Inkesta), eta 1994ko Gerontologia Plana egiteko erabili zen. Bigarren azterlana 2010ean egin zen (EAEko adinekoen bizi baldintzei buruzko inkesta), eta dokumentu honen oinarri gisa erabili zen 2011n: «Zahartzen ari direnen ongizatean eta tratu egokian aurrera egiteko ehun proposamen. Ekintza plan baterako oinarriak». Ezaugarri berak dituen azken azterlana 2014an egin zen, eta 2015-2020ko Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia abiarazteko oinarriak jarri zituen.

2020an egindako azterlana inkestaren hirugarren edizioa da, eta, pertsona horien errealitatea ezagutzea ez ezik, etorkizuneko joerak eta premiak aztertzea ere ahalbidetzen du. Inkesta horretan, beharrezkotzat jo zen COVID-19ak 55 urteko eta gehiagoko biztanleengan izandako inpaktua ere kontuan hartzea, adineko pertsonengan eragin handia izan baitu.

Ezagutza hori lagungarria izango da Euskadin zahartze prozesuaren inguruko iraganeko politika publikoak ebaluatzeko eta etorkizunekoak diseinatzeko.

Azterlanaren emaitza *gaikako txosten sorta* bat da, zehatz-mehatz aztertzen dituen Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen egungo egoera eta bilakaera. Segidako zenbaki honek **COVID-19aren krisiak eguneroko bizitzan izandako inpaktua** aztertzen du hainbat arlotan, hala nola osasunean, gizarte sarean, parte hartzean, gogobetetasunean eta bakardade sentimenduan.

Helburuak

Bizi baldintzen azterketaren (BBA+55 2020) helburu orokorra da gizarte politiken planifikatzaile eta arduradunei informazio zehatza eta puntuala ematea Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleen bizitza familiarraren, banakako bizitzaren eta bizitza ingurunearen baldintzei buruz. Halaber, inkestaren bidez, lurraldeko adinekoen errealitatea sistematizatu eta zabaldu nahi da, biztanleria talde horri dagozkion hainbat alderdiri helduz.

Azterlanaren helburu espezifikoak honako hauek dira:

- Adineko pertsonen eguneroko bizitzaren parte diren alderdi ugariaren argazki eguneratu bat eskaintzea (baldintza materialak, osasun egoera, heziketa maila, astialdia, parte hartzea, gizarte harremanak, ingurunea eta abar).
- Alderdi horiek 2010. urteaz geroztik izan dituzten joeren eta bilakaeraren analisi konparatiboa egitea.
- Euskadiko lurraldeen artean eta hiriburuen artean gai horien inguruan dauden aldeak ezagutzea.
- Biztanle talde horren premiak identifikatzea.

2020an gertatutako krisi egoeraren ondorioz, honako helburu hau gehitu zitzairen hasieran planifikatutakoei:

- COVID-19aren krisiak Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen eguneroko bizitzan izan duen inpaktua ezagutzea

TXOSTEN HONEN HELBURUAK

Hona hemen txosten honen helburu zehatza: COVID-19ak Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko biztanleengan izandako eragin psikosozialari buruzko informazio xehea eta puntuala ematea.

Honako hauek dira helburu espezifikoak:

- COVID-19ak adinekoen eguneroko bizitzan izandako inpaktuaren pertzepzioaren irudi bat lortzea (osasunean, bizikidetza moduetan, harremanetan, jardueretan, etxetik ateratzeko maiztasunean, jasotako eta emandako zaintzetan, eta gogobetetasun eta bakardade sentimenduetan izandako eragina).
- Eguneroko bizitzan COVID-19aren krisiaren inpakturik handiena jasan duten adinekoen profilak identifikatzea.

Metodologia

Txostenaren oinarria da Euskadin etxebizitza familiarretan bizi diren 55 urteko eta gehiagoko bi generoetako biztanleei egindako inkesta baten azterketa kuantitatiboa.

Ausazko laginketa egin zen, eremu geografikoaren, adinaren eta sexuaren arabera estratifikatua. Euskadiko hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan emaitza adierazgarriak lortzeko, azken lagina 2.753 elkarrizketakoa izan zen, eta honela banatu ziren:

3. taula. Laginaren azken banaketa, habitataren eta lurraldearen arabera, hiriburuetan gutxienez 400 elkarrizketa eginda

GERUZA	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
5.000 baino gutxiago	47	124	66	237
5.001 eta 20.000 artean	35	267	300	602
20.001 eta 50.000 artean	0	306	142	448
50.000 baino gehiago	0	199	67	266
Hiriburuak	400	400	400	1200
Guztira	482	1296	975	2753

Informazioa biltzeko teknika telefono bidezko elkarrizketa izan zen, CATI sistema informatikoaren bidez egituratutako galdetegi batean oinarrituta. Landa lana 2020ko uztailean, abuztuan eta irailean egin zen.

PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA

2020ko bizi baldintzei buruzko azterlanean, EAEn bizi diren 55 urteko eta gehiagoko 2.753 pertsonak hartu dute parte. Biztanleriaren lagin adierazgarri horren ezaugarriak taula honetan ikus daitezke:

Laginaren ezaugarriak

Generoa	Kop.	%
Gizonezkoak	1.233	% 44,7
Emakumezkoak	1.527	% 55,3
Adina		
Batezbestekoa (DT)		% 70,3 (27,10)
55-64	1.066	% 38,6
65-79	1.144	% 41,5
80+	550	% 19,9
Egoera zibila		
Ezkongabea	366	% 13,3
Ezkondua edo elkarrekin bizitzen	1.615	% 58,5
Banandua edo dibortziatua	171	% 6,2
Alarguna	602	% 21,8
ED/EDE	6	% 0,2
Hezkuntza maila		
Lehen mailakoak ere ez	397	% 14,4
Lehen mailakoak	673	% 24,4
Bigarren mailakoak eta goi mailakoak	1.657	% 60
Beste batzuk	1	% 0
ED/EDE	32	% 1,2
Jarduerarekiko lotura		
Lanean	624	% 22,6
Erretiratua edo pentsioduna	1.769	% 64,1
Langabezian	104	% 3,8
Etxeko lanak	211	% 7,7
Bestelakoak	37	% 1,4
ED/EDE	14	% 0,5

Egoera ekonomikoa		
600 € baino gutxiago	59	% 2,1
601 eta 900 € artean	186	% 6,7
901 eta 1.800 € artean	715	% 25,9
1.800 € baino gehiago	1.127	% 40,9
Diru sarrerarik gabe	8	% 0,3
ED/EDE	664	% 24,0
Osasun egoera		
Oso ona + Ona	2049	% 74,2
Erdipurdikoa	518	% 18,8
Txarra + Oso txarra	190	% 6,9
ED/EDE	3	% 0,1

Emaitzak

COVID-19aren krisiak inpaktu handia izan du gizarte osoan, baina batik bat adinik handieneko pertsonengan. Euskadiko 55 urteko eta gehiagoko pertsonen bizi baldintzei buruzko inkestan —2020ko uztailetik irailera bitartean egin zen—, pandemiak pertsona horien eguneroko bizitzan izan duen eraginari buruzko zenbait galdera sartu ziren, haien bizi baldintzetan zer aldaketa gertatu ziren jakiteko. Osasunaren, bizikidetzaren moduen, harremanen, jardueren, etxetik ateratzeko maiztasunaren, jasotako eta emandako zaintzen, eta gogobetetasun eta bakardade sentimenduen alderdiei dagokienez, COVID-19aren krisiak aurreko urtearekiko eragindako aldaketaren pertzepzioa neurtu zen.

Kontuan hartu behar da 2020ko udan «normaltasun berria» izeneko egoeran geundela, hots, konfinamendua ez zela nahitaez egin behar. Zenbait murriztapeni edo prebentzio neurriari eutsi zitzaientzen, hala nola maskaren derrigorrezko erabilerari, prebentzio eta higienari barrualdeetan, eta edukiera mugei saltokietan eta bilera familiarretan. Beraz, azterlan honetan ageri diren galdera guztiak 2020ko udako egoerari dagozkio, eta xedea zen pertsona horien jokabideak eta egoerak krisiaren aurreko urtearekin alderatuta nola aldatu ziren jakitea.

ALDAKETAK OSASUNEAN

COVID-19aren kasu positiboak

Adinekoak arrisku handiko taldea dira koronabirusaren aurrean, erantzun immunitario txikiagoa dutelako, erresilientzia ahalmen txikiagoa dutelako, komorbiditate handiagoak dituztelako eta, azken batean, ahulagoak direlako. Baina hori guztia pertsonen adin biologikoarekin (bizi ziklo potentzialarekin) lotzen da, eta ez adin kronologikoarekin (urteekin). Hala, inkestan elkarrizketatutako 55 urteko eta gehiagoko pertsonetatik 49k (% 1,8k) soilik eman dute positibo koronabirus probetan. Kasu positibo horiek honela daude banatuta: % 57,1, 55 eta 64 urte bitarteko pertsonena; % 40,8, 65 eta 79 urte bitartekoena, eta % 2, 80 urte edo gehiagokoena. Koronabirus probetan, laurogei

urteak beteak dituzten pertsona gutxik eman dute positibo; beharbada, konfinamenduan biztanle horiek babesteko hartutako neurri zorrotzen ondorioz, alde batetik, eta, beste batetik, pertsona horiek hobeto bete dituztelako osasun gomendioak: etxean konfinatzea, isolatzea eta gizarte harremanak murriztea. Orobat, kontuan hartu behar da kutsatuta eta egoera larrian egon zitezkeen pertsona batzuek ezin ziotela inkesta honi erantzun.

Positiboa koronabirus probetan

	Edad			p
	55 - 64 años	65 - 79 años	80 o más años	
Sí	2,6%	1,7%	0,2%	
No	96,4%	96,8%	98,0%	
Ns/Nc	0,9%	1,5%	1,8%	0,005

Aldaketaren pertzepzioa osasun egoeran

Osasun krisiak osasun egoeraren pertzepzioan izandako inpaktuak inkestan elkarrizketatutako pertsonen sektore txiki batean izan du zuzeneko eragina. Gehienek (% 83,5ek) onartu dute krisiak ez duela aldaketarik eragin alderdi horretan; inkestatutako pertsonen % 14,8k, berriz, krisiaren ondorioz beren osasun egoeraren pertzepzioak okerrera egin duela adierazi du. Bestalde, beren osasun egoerak okerrera egin duela adierazi dutenek profilik ahulena dute; hau da, emakumeak, alargunak, hezkuntza maila txikiko pertsonak eta 600 eurotik beherako diru sarrerak dituztenak dira.

Osasun egoeraren pertzepzioaren aldaketa aldagai soziodemografikoen arabera

	Cambio percepción estado de salud				p
	Sí, a mejor	No, es igual	Sí, a peor	Ns/Nc	
Total +55	1,3%	83,5%	14,8%	0,4%	
Total +65	1,2%	82,3%	15,9%	0,5%	
Edad en tramos					
55-64	1,4%	85,4%	13,0%	0,2%	
65-79	1,1%	83,7%	14,7%	0,5%	
80 y más	1,5%	79,8%	18,4%	0,4%	0,103
Sexo					
Hombres	1,4%	87,5%	10,7%	0,4%	
Mujeres	1,3%	80,2%	18,1%	0,4%	0,000
Estado civil					
Soltero/a	2,7%	80,3%	16,4%	0,5%	
Casado/conviendo	0,8%	86,4%	12,5%	0,4%	
Separado/a/Divorciado/a	1,2%	89,5%	9,4%	0,0%	
Viudo/a	2,0%	76,1%	21,6%	0,3%	
Ns/Nc	0,0%	83,3%	16,7%	0,0%	0,000
Nivel educativo					
Menos que primarios	1,5%	73,9%	24,4%	0,3%	
Primarios	1,5%	80,7%	17,4%	0,4%	
Secundarios y superiores	1,2%	87,3%	11,2%	0,3%	
Ns/Nc	0,0%	67,7%	29,0%	3,2%	0,000
Situación económica					
Menos de 600€	1,7%	62,7%	35,6%	0,0%	
De 601 a 900	1,1%	75,7%	23,2%	0,0%	
De 901 a 1800	1,1%	80,8%	17,8%	0,3%	
Más de 1800	1,6%	87,7%	10,4%	0,4%	
Sin ingresos	0,0%	75,0%	25,0%	0,0%	
Ns/Nc	1,1%	83,6%	14,8%	0,6%	0,000

Inkestan parte hartu duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 1,8k adierazi du COVID-19aren probetan positibo eman duela krisiaren lehen hilabeteetan.

Eguneroko bizitzako jardueretarako (EBJ) laguntzak

Inkestako datuen arabera, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 17,5ek nolabaiteko laguntza jaso du eguneroko bizitzako jarduerak egiteko (oinarrikoak, autozaintzarekin lotuta daudenak; eta instrumentalak, autonomiarekin lotuta daudenak). Pertsona horien % 92,8k adierazi du COVID-19aren krisiak ez duela aldatu laguntza horiek jasotzeko maiztasuna; beraz, pertsona gehienek maiztasun berarekin jaso dute EBJak egiteko behar zuten laguntza. Baina, laguntza gutxiago jaso dutela

adierazi dutenen profila aztertuta, hau ondoriozta daiteke: emakumeak, alargunak, hezkuntza maila txikikoak eta 600 eurotik beherako diru sarrerak dituztenak dira. Datu horiek zuhurtziaz hartu behar dira, egoera horretan jende gutxi baitzegoen.

Laguntzak jasotzeko maiztasunean izandako aldaketaren pertzepzioa, profil soziodemografikoaren arabera

	Cambio frecuencia recepción de ayudas				
	Sí, ha aumentado	No, sigue igual	Sí, ha disminuido	Ns/Nc	p
Total +55	2,9%	92,8%	3,3%	1,0%	
Total +65	4,0%	91,3%	3,8%	0,9%	
Edad en tramos					
55-64	1,0%	95,3%	2,4%	1,2%	
65-79	2,2%	94,1%	3,1%	0,5%	
80 y más	7,8%	85,3%	5,3%	1,6%	0,000
Sexo					
Hombres	1,5%	96,3%	1,7%	0,5%	
Mujeres	3,9%	90,1%	4,6%	1,4%	0,000
Estado civil					
Soltero/a	1,6%	92,1%	4,9%	1,4%	
Casado/a Conviviendo	1,9%	95,1%	2,3%	0,7%	
Separado/a Divorciado/a	1,2%	95,9%	2,9%	0,0%	
Viudo/a	6,8%	86,2%	5,1%	1,8%	0,000
Nivel educativo					
Menos que primarios	6,0%	86,6%	4,5%	2,8%	
Primarios	3,0%	93,5%	2,5%	1,0%	
Secundarios y superiores	1,9%	94,2%	3,3%	0,6%	0,000
Situación económica (€)					
Menos de 600	6,8%	83,1%	10,2%	0,0%	
De 601 a 900	4,3%	89,2%	5,4%	1,1%	
De 901 a 1800	4,6%	92,0%	2,5%	0,8%	
Más de 1800	1,7%	94,4%	3,1%	0,8%	
Sin ingresos	0,0%	100,0%	0,0%	0,0%	0,000

Estali gabeko arreta premiak (medikua eta dentista)

COVID-19aren pandemia hasi zenean, gaixotasun kronikoen arreta eta, bereziki, prebentzioa martxan zeuden, adinekoen funtzionaltasunari eusteko helburuarekin. Konfinatzeko, isolatzeko eta gizarte harremanak murrizteko neurriak arreta medikoan ere ezarri ziren, eta gaixotasuna tratatzeari eman zitzaion lehentasuna. Horrek adinekoen arreta medikoan eragin du; izan ere, inkestaren datuen arabera, 55 urteko eta gehiagoko biztanleen % 26,5ek medikuari edo dentistari kontsultatzeko beharra izan zuen 2020an, baina ez zuen kontsultarik egin. Alarma egoeran geundela, pertsona horien % 60,5ek medikuaren arreta behar izan zuen, eta % 48,3k, berriz, dentistarena.

SARE SOZIALA

Aldaketa bizikidetzan moduetan

Pandemiaren hedapena geldiarazteko hartu beharreko neurrietatik, honako hauek izan ziren gogorrenak: erabateko etxeko konfinamendua eta joan-etorrien murrizketa. Neurri horiek bizikidetzan moduetan izan zuten eragina; hain zuzen, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 7,4ren egoera aldatu egin zen. Pertsona horien % 46,7k adierazi du konfinamenduan ohi baino pertsona gehiagorekin bizi izan zela. Hala, etxean, 2,20 lagun bizi ziren batez beste, eta, konfinamenduan, 2,52koa izan zen batezbestekoa.

Aldaketak konfinamenduan elkarrekin bizi ziren pertsonen kopuruan

	Nº de personas con las que convive		p
	habitualmente	durante el confinamiento	
Media	2,20	2,52	0,001

Batik bat, pertsona bakarrek familien etxebizitzetan (kasuen % 66,7tan) handitu zen bizikidetzaren kopurua konfinamenduan. Dena den, generoari, adinari, osasun egoerari, laguntza beharrei eta beste aldagai batzuei buruzko datuek ez dute aldaketa hori azaltzen.

Aitzitik, belaunaldi anitzeko familiek (bikoteek eta emantzipatu gabeko seme-alabek osatzen dituzten familiek) pertsona gutxiagorekin bizi izan zirela jakinarazi dute.

Aldaketak bizikidetzan konfinamenduan, aldagai soziodemografikoen arabera

	Cambio en la forma de convivencia			
	Menor que el habitual	Igual que el habitual	Mayor que el habitual	p
Total +55	30,6%	22,6%	46,7%	
Total +65	28,7%	24,2%	47,2%	
Edad				
55-64 años	32,4%	21,6%	46,1%	
65-79 años	21,2%	25,8%	53,0%	
80 y más años	43,8%	21,9%	34,4%	0,217
Sexo				
Hombre	24,3%	21,6%	54,1%	
Mujer	34,1%	23,0%	42,9%	0,253
Estado civil				
Casados	36,8%	17,5%	45,6%	
Otra situación	23,0%	28,7%	48,3%	0,052
Tipo de hogar				
Unipersonal	3,7%	29,6%	66,7%	
Pareja	18,6%	25,4%	55,9%	
Multigeneracional en su casa	57,5%	17,5%	25,0%	
Multigeneracional en casa del hijo	0,0%	25,0%	75,0%	
Otro tipo	66,7%	0,0%	33,3%	0,000
Necesidad de ayuda				
Necesita	46,4%	25,0%	28,6%	
No necesita	28,3%	22,0%	49,7%	0,084

Aldaketak beste pertsona batzuekiko harremanetan

Pandemian, behin eta berriz eman da gizarte harremanak murrizteko gomendioa, birusaren hedapena saihesteko neurririk eraginkorrenetako bat delakoan. Hala, 2020ko udan, espero zitekeenez, senideekin zein lagunekin egoteko maiztasuna aldatu egin zen galdetutako adinekoen % 46,4ren kasuan; beraz, 55 urteko eta gehiagoko biztanleen ia erdiek aldatu zuten beste pertsona batzuekin harremanetan egoteko maiztasuna. % 28,6k adierazi du senideekin harremanetan egoteko maiztasuna txikitu egin zela aurreko urtearekin alderatuta, eta % 32,1ek, lagunekin egoteko maiztasuna txikitu zela. Dena den, inkestan egindako galderan, aurrez aurreko kontaktua, telefono bidezkoa eta bideokonferentzia bidezkoa hartu dira kontuan; % 17,8k adierazi du senideekin maizago hitz egin zuela, eta % 14,1ek, lagunekin, teknologia berrien erabilerari esker, seguruenik.

Aldaketa gizarte harremanen maiztasunean

	Cambio en la frecuencia de contacto		
	Sí, ha aumentado	Sí, ha disminuido	No, sigue igual
Familiares	17,8%	28,6%	53,6%
Amigos	14,1%	32,1%	53,6%

Senideekiko harremana aztertuz gero, eredu desberdinak daude profil soziodemografikoaren eta osasun egoeraren arabera. Emakume gazteek adierazi dute handitu egin zutela senideekiko harremanen maiztasuna; izan ere, beste pertsonak baino gehiago handitu zuten. Haien kasuan, litekeena da harremanen maiztasunaren aldaketa zaintzekin lotuta egotea, ziur asko gehiagotan zaindu behar izan dituztelako beste pertsona batzuk. Harremanen maiztasuna txikitu zutela adierazi duten pertsonak profil hau dute: ezkonduak, 65 eta 79 urte bitartekoak, osasun egoera on eta oso onekoek, edo osasun egoera txar eta oso txarrekoak. Agian, aisialdiko jardueretan gutxiago parte hartzearekin eta murrizketa soziosanitarioen jarraipenean arreta handiagoa jartzearekin dago lotuta aldaketa hori.

Aldaketa senideekiko harremanen maiztasunean, profil soziodemografikoaren eta osasun egoeraren arabera

	Cambio en la frecuencia de contacto con familiares				
	Sí, a mayor frecuencia	No, sigue igual	Sí, a menor frecuencia	Ns/Nc	p
Sexo					
Hombre	14,7%	55,8%	29,4%	0,1%	0,001
Mujer	20,3%	51,7%	28,0%	0,0%	
Edad					
55-64 años	19,6%	50,6%	29,7%	0,1%	0,000
65-79 años	16,6%	52,5%	30,9%	0,0%	
80 y más años	16,7%	61,6%	21,6%	0,0%	
Estado civil					
Casados	17,9%	51,3%	30,8%	0,1%	0,008
Otra situación	17,7%	57,0%	25,3%	0,0%	
Estado de salud					
Muy bueno y bueno	17,6%	52,8%	29,6%	0,0%	0,020
Regular	18,9%	59,2%	22,0%	0,0%	
Muy malo y malo	16,9%	47,6%	35,4%	0,0%	
Necesidad de ayuda					
No necesita	17,5%	52,4%	30,1%	0,0%	0,000
Necesita	19,4%	61,8%	18,8%	0,0%	

Lagunen sarearekiko harremanen maiztasunari dagokionez, adinaren, egoera zibilaren, osasun egoeraren eta laguntza beharraren arabera aldatu zen. Hain zuzen, gazteenen (55 eta 64 urte bitartekoen), ezkonduen, osasun ona eta oso ona zutenen eta laguntzarik behar ez zutenen kasuan, behera egin zuen maiztasunak.

Aldaketa lagunekiko harremanen maiztasunean, profil soziodemografikoaren eta osasun egoeraren arabera

	Cambio en la frecuencia de contacto con amigos				
	Sí, a mayor frecuencia	No, sigue igual	Sí, a menor frecuencia	Ns/Nc	p
Sexo					
Hombre	12,0%	55,0%	32,7%	0,2%	
Mujer	15,8%	52,5%	31,6%	0,2%	0,043
Edad					
55-64 años	15,9%	48,4%	35,3%	0,4%	
65-79 años	14,1%	53,2%	32,7%	0,0%	
80 y más años	10,5%	64,5%	24,7%	0,2%	0,000
Estado civil					
Casados	14,7%	50,8%	34,4%	0,2%	
Otra situación	13,2%	57,7%	28,8%	0,3%	0,003
Estado de salud					
Muy bueno y bueno	14,3%	52,1%	33,4%	0,1%	
Regular	13,9%	60,5%	25,2%	0,4%	
Muy malo y malo	11,6%	51,6%	36,3%	0,5%	0,010
Necesidad de ayuda					
No necesita	14,5%	52,3%	33,1%	0,2%	
Necesita	11,6%	62,9%	25,5%	0,0%	0,002

JARDUERA

Aldaketak zaintzan

Euskadin, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 19k astean behin gutxienez zaintzen ditu seme-alabak eta bilobak. % 15,7k maiztasun horrekin zaintzen ditu adinekoak, modu informalean.

Normalean zaintzak emateaz arduratzen diren pertsonen % 19,8ren kasuan, COVID-19aren krisiak aldatu egin zuen lan horiek egiteko maiztasuna 2020ko udan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Ildo horretan, % 11,4k adierazi du krisiaren ondorioz bere zaintza jarduera maiztasun txikiagoarekin egin zuela, eta % 8,4k, berriz, maiztasun handiagoarekin egin zuela.

Zaintzen maiztasunaren aldaketa horretan, alde nabarmenak daude adinaren arabera. Gazteenek, hots, 55 eta 64 urte bitartekoek,

areagotu egin zituzten zaintza lanak; 65 eta 79 urte bitartekoek, berriz, murriztu egin zuten jarduera horretan parte hartzeko maiztasuna. Adin handiagoko pertsonen kasuan, ez dago alde nabarmenik alderatutako epealdien artean.

Aldaketa zaintzen maiztasunean, profil soziodemografikoaren arabera

	Cambio en la frecuencia de cuidado			
	Sí, a mayor	Sí, a menos	No, sigue igual	p
Total +55	8,4%	11,4%	80,3%	
Total +65	5,5%	82,0%	12,5%	
Edad en tramos				
55-64	58,5%	30,6%	50,7%	
65-79	40,0%	63,0%	42,3%	
80 y más	1,5%	6,5%	7,0%	0,000
Sexo				
Hombres	39,2%	37,1%	42,9%	
Mujeres	60,8%	62,9%	57,1%	0,461

55 eta 64 urte bitarteko adinekoek nabaritu dute gehiagotan zaindu dituztela bilobak eta seme-alabak, aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta, maiztasuna asteko egun batekoa edo gehiagokoa denean. Aitzitik, 65 eta 79 urte bitarteko pertsonak zaintza maiztasuna murriztu egin dela uste dute; bestalde, adin tarte horretan daude aitona-amona zaintzaile gehien. Aitona-amona gazteak direnean, seme-alabei laguntzen jarraitu dute adingabeak zaintzen; hala ere, aitona-amona zaharragoen kasuan, txikitu egin da seme-alaben eskaera hori, ziur aski COVID-19aren gaixotasuna adinik handieneko biztanleen artean kutsatzeko arriskua dela eta, edo osasun krisian ezarritako kontziliazio neurrien ondorioz, seme-alaba adingabeak dituzten familiei haiek etxean zaintzeko aukera eman baitiete, kanpoko laguntzarik gabe. Telelana izan da neurri horietako bat.

Aldaketa bilobak eta seme-alabak zaintzeko asteko maiztasunean

	Cambio en la frecuencia de cuidado nietos/as e hijos/as			p
	Sí, a mayor	Sí, a menos	No, sigue igual	
Edad en tramos				
55-64	58,5%	30,6%	50,7%	
65-79	40,0%	63,0%	42,3%	
80 y más	1,5%	6,5%	7,0%	0,000

Adinekoen zaintzari dagokionez, ohiko zaintza denean (astean behin edo gehiagotan), zaintza maiztasuna ez da nabarmen aldatu aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta. Adinekoak zaintzeko maiztasuna noizean behingoa denean (astean behin baino gutxiagotan), handitu egin da gazteenen kasuan, 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen kasuan, eta txikitu egin da 65 eta 79 urte bitarteko pertsonen kasuan.

Aldaketa adinekoak zaintzeko maiztasunean

	Cambio en la frecuencia de cuidado mayores			p
	Sí, a mayor	Sí, a menos	No, sigue igual	
Edad en tramos				
55-64	7,9%	10,1%	81,9%	
65-79	5,2%	18,0%	76,8%	
80 y más	2,6%	6,3%	91,0%	0,000

Beraz, 55 urteko eta gehiagoko biztanleek ematen dituzten familia zainketetan krisiak izandako eragina ez da berdina izan adin tarte guztietan. Hala, badirudi gazteenek maiztasun handiagoz zaindu dituztela bilobak eta seme-alabak, maiztasuna handia zenean, eta adinekoak, maiztasuna txikia zenean; 65 eta 79 urte bitarteko adin tarteetako pertsonentzat, berriz, txikitu egin da seme-alabak eta bilobak zein adineko senideak zaintzeko lanetan izandako inplikazioa. Seguruenik, urruntze sozialari eusteko eta beharrezkoak ez diren harremanak saihesteko osasun gomendioekin lotuta dago hori, bai eta adinik handieneko biztanleria kutsatzeko arriskuari buruzko abisuarekin ere.

Eguneroko jarduera

COVID-19aren krisiak eguneroko bizimoduan eta ohituretan izan du eragina bereziki. Adinekoek egiten dituzten jardueretan islatzen da hori; izan ere, etxetik kanpoko jardueren kasuan, % 47 eta % 55 artean

murriztu dira. Jarduera sedentarioek eta etxe barruan egiten direnek, aldiz, egonkor samar iraun dute; pertsonen % 77-82k adierazi dute ez dutela jarduera horiek egiteko maiztasuna aldatu, eta, elizkizunetara joaten direnen kasuan, 55 urteko eta gehiagoko pertsonen (% 74k) ez dute ohitura hori aldatu.

Aldaketa jardueretan parte hartzeko maiztasunean, jarduera motaren arabera

	Cambio en la frecuencia			Ns/Nc
	Sí, ha aumentado	Sí, ha disminuido	No, sigue igual	
Actividades				
Deporte o ejercicio físico	4,3%	27,6%	68,0%	0,1%
Actividades sedentarias	15,2%	7,0%	77,7%	0,2%
Actividades de ocio doméstico-hobbies	5,7%	11,4%	82,5%	0,4%
Actividades culturales	0,2%	47,1%	52,5%	0,2%
Actividades sociales	0,4%	55,2%	44,3%	0,1%
Hacer turismo, viajes, excursiones	0,3%	51,4%	48,1%	0,3%
Ir a actos religiosos	0,2%	24,9%	74,3%	0,5%
Salir de casa	1,7%	47,0%	51,0%	0,3%

Biztanleen % 32rentzat, ariketa fisikoa edo kirola egiteko maiztasuna 2020ko udan aldatu zen, krisiaren ondorioz. Jarduera mota hori gutxiagotan egin dutela nabaritu dutenen % 27,6k adierazi du gutxienez astean behin edo sarriago egin duela ariketa fisikoa edo kirola. Profil soziodemografikoaren arabera aztertuz gero, alde nabarmenak ikusiko ditugu; emakumeek eta adin handiko pertsonen jasan dute krisiaren inpakturik handiena beren jardueretan, aurreko urtearekin alderatuta. Aitzitik, gizonek maizago adierazi dute ariketa fisikoa edo kirola egiteko ohiturari eutsi diotela. Orobat, gazteenen adin tartean (55 eta 64 urte bitartekoan), gehiagotan egin dute ariketa fisikoa edo kirola.

Kirola edo ariketa fisikoa egiteko ohitura, profil soziodemografikoaren arabera

	Deporte o ejercicio físico			p
	Sí, ha aumentado	No, sigue igual	Sí, ha disminuido	
Sexo				
Home	4,5%	74,0%	21,6%	0,000
Mujer	4,2%	63,1%	32,5%	
Edad				
5-64 años	6,5%	67,1%	26,5%	0,000
5-79 años	3,6%	68,3%	28,0%	
80 y más años	1,6%	69,0%	29,0%	

Jarduera sedentarioei dagokienez, % 22,3k adierazi du zenbait jarduera egiteko maiztasuna aldatu duela; adibidez, telebista ikustea, irratia entzutea eta irakurtzea. Nahiz eta gizonen eta emakumeen artean alderik egon ez, aldeak badaude adinari dagokionez. Biztanleria talderik gazteenean, handitu egin da jarduera mota horren maiztasuna, seguru asko murrizketek etxetik kanpo jarduerak egiteko aukera txikitzea eragin dutelako. 80 urtetik gorako pertsonak, berriz, jarduera sedentarioak egiteko maiztasunari eutsi diote. Adin talde guztietan, ia pertsona guztiek (% 98,4-99,1ek) egunero egin dituzte jarduera sedentarioak

Jarduera sedentarioak, profil soziodemografikoaren arabera

	Actividades sedentarias			p
	Sí, ha aumentado	No, sigue igual	Sí, ha disminuido	
Sexo				
Hombre	15,0%	78,9%	6,0%	0,232
Mujer	15,4%	76,6%	7,8%	
Edad				
55-64 años	18,0%	74,5%	7,5%	0,000
65-79 años	14,9%	79,2%	5,8%	
80 y más años	10,2%	81,1%	8,4%	

Etxeko aisiako jardueretan, % 88,2k adierazi du ez duela jarduera horiek egiteko maiztasuna aldatu, aurreko urtearekin alderatuta. Kontuan hartzeko datu garrantzitsu bat dago: inkestari erantzun dioten pertsonen % 98,7k adierazi du egunero egin dituela jarduera horiek, eta, agian, horregatik aldatu da hain gutxi jarduera horiek egiteko maiztasuna. Hala ere, 55 eta 74 urte bitarteko emakumeak izan dira jarduera horiek gehiagotan egin dituztenak, seguruenik, berriro ere, mugikortasunean, joan-etorrietan eta espazioen erabileran ezarritako murrizketen ondorioz.

Etxeko aisiako jarduerak, profil soziodemografikoaren arabera

	Actividades de ocio doméstico				p
	Sí, ha aumentado	No, sigue igual	Sí, ha disminuido	Ns/Nc	
Sexo					
Hombre	4,9%	84,4%	10,6%	0,1%	0,019
Mujer	6,4%	80,9%	12,0%	0,6%	
Edad					
55-64 años	7,6%	80,6%	11,4%	0,5%	0,000
65-79 años	5,9%	82,5%	11,5%	0,2%	
80 y más años	1,8%	86,0%	11,5%	0,7%	
Sexo y edad					
Hombres de 55-64 años	6,0%	83,1%	10,8%	0,1%	0,000
Mujeres de 55-64 años	7,9%	79,9%	11,7%	0,5%	
Hombres mayores de 75 años	1,8%	87,8%	10,1%	0,3%	
Mujeres mayores de 75 años	3,7%	82,7%	12,7%	0,9%	

Kultura jarduerari dagokionez, % 47,3k adierazi du aldatu egin duela jarduera horien maiztasuna, aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta. Emakume eta gazte gehiagok adierazi dute beren jarduera maila txikitu egin dela. Generoa eta adina batera kontuan hartuta, 75 urteko edo gehiagoko gizon gehiagok eutsi diote beren jarduera mailari, eta 55 eta 74 urte bitarteko emakume gehiagok gutxiagotan hartu dute parte jarduera horietan. Gainera, egoera zibilari eta osasun egoerari erreparatuz gero, aldeak ikusten dira jarduera mota horri dagokionez. Osasun egoera ona eta oso ona dutela adierazi duten pertsonak gehien murriztu dute jarduera horietan parte hartzea. Kontuan hartu behar da profil horretako pertsonak direla jarduera horiek gehien egiten zituztenak, eta, beraz, horiek jasan dute bereziki krisiak kultura jardueretan izandako inpaktua. Halaber, kontuan hartu behar da kultura guneek ere edukiera murrizketak eta mugak izan dituztela; horrek zaildu egin du jarduera horiek egitea.

Kultura jarduerak, profil soziodemografikoaren arabera

	Actividades culturales				p
	Sí, ha aumentado	No, sigue igual	Sí, ha disminuido	Ns/Nc	
Sexo					
Hombre	0,2%	55,6%	44,1%	0,0%	0,009
Mujer	0,2%	50,0%	49,5%	0,3%	
Edad					
55-64 años	0,3%	44,2%	55,4%	0,1%	0,000
65-79 años	0,3%	52,2%	47,4%	0,1%	
80 y más años	0,0%	69,1%	30,5%	0,4%	
Sexo y edad					
Hombres de 55-64 años	0,3%	51,8%	47,9%	0,0%	0,000
Mujeres de 55-64 años	0,3%	41,8%	57,8%	0,1%	
Hombres mayores de 75 años	0,0%	66,1%	33,9%	0,0%	
Mujeres mayores de 75 años	0,0%	64,8%	34,7%	0,6%	
Estado civil					
Casado/a conviviendo	0,3%	50,2%	49,4%	0,1%	0,021
Otra situación	0,1%	55,8%	44,0%	0,2%	
Estado de salud					
Muy bueno y bueno	0,3%	48,6%	51,0%	0,1%	0,000
Regular	0,0%	62,5%	37,1%	0,4%	
Muy malo y malo	0,0%	68,8%	31,2%	0,0%	

Jarduera sozialetan, aztergai ditugun biztanleen % 55,3k adierazi du gutxiagotan egin dituela jarduera horiek. Gainera, nabarmentzekoa da jarduera sozialak egiteko maiztasuna murriztu duten emakumeen ehuneko handiagoa dela. Adinari dagokionez, adin talderik gazteeneko pertsonak jakinarazi dute, besteek baino gehiago, jarduera horien maiztasuna txikitu dutela. Generoa eta adina batera kontuan hartuta, emakume gazte gehiagok adierazi dute jarduera horiek gutxiagotan egin dituztela. Krisia hasi aurretik jarduera sozialetan sarriago parte hartzen zutela adierazi dutenak dira jarduera horietan gutxiagotan parte hartu dutenak. Profil hau dute: 55 eta 74 urte bitarteko gizonak eta emakumeak, jarduera sozialetan astean behin parte hartzen zutenak. Seguru asko, parte hartzearen beherakada aisialdiko lokalei (adinekoen zentroei, kafetegiei, aisiarako lekuei...) eragin dieten murrizketen ondorio da. Egoera zibila eta osasun egoera ere kontuan hartu behar dira jarduera sozialetan parte hartzean sumatzen den aldaketari dagokionez; hala, aurreko urtearekin alderatuta, ezkonduko pertsonak gutxiagotan parte hartu dutela nabaritu dute, bai eta osasun egoera ona edo oso ona dutela adierazi dutenek ere.

Jarduera sozialak, profil soziodemografikoaren arabera

	Actividades sociales				p
	Sí, ha aumentado	No, sigue igual	Sí, ha disminuido	Ns/Nc	
Sexo					
gizona	0,4%	46,8%	52,8%	0,0%	0,044
emakume	0,3%	42,3%	57,2%	0,2%	
Adina					
5-64 años	0,4%	37,5%	62,2%	0,0%	0,000
5-79 años	0,4%	44,2%	55,2%	0,1%	
80 y más años	0,2%	57,8%	41,6%	0,4%	
Sexo y edad					
gizonak de 55-64 años	0,6%	44,4%	55,0%	0,0%	0,000
emakumeak de 55-64 años	0,4%	34,9%	64,7%	0,0%	
gizonak mayores de 75 años	0,0%	53,3%	46,7%	0,0%	
emakumeak mayores de 75 años	0,2%	55,7%	43,6%	0,6%	
Estadua zibila					
Basato/a conbiviendo	0,4%	40,6%	58,9%	0,1%	0,000
Besta situacón	0,4%	49,5%	49,9%	0,2%	
Estadua de salud					
Estadua on eta on	0,3%	41,4%	58,2%	0,0%	0,000
Estadua erregular	0,4%	50,6%	48,6%	0,4%	
Estadua txarra eta txarra	0,0%	59,8%	40,2%	0,0%	

Turismoa, bidaiak edo txangoak egiteari dagokionez, pertsonen % 51,7k adierazi du jarduera horiek egiteko maiztasuna aldatu egin dela aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta. Haietatik, adin talderik gazteenen pertzepzioa nabarmendu behar da, jarduera horiek egiteko maiztasuna gehiago txikitu dela uste baitute, batez ere 55 eta 74 urte bitarteko emakumeek. Berrito ere, jarduera mota hori maizago egiten dutela dioten pertsoneri eragiten die aldaketak, bereziki; hain zuzen, 55 eta 74 urte bitarteko gizon eta emakumeei.

Turismoa, bidaiak eta txangoak egiteko jarduerak, profil soziodemografikoaren arabera

	Hacer turismo, viajes, excursiones				p
	Sí, ha aumentado	No, sigue igual	Sí, ha disminuido	Ns/Nc	
Sexo					
Hombre	0,2%	50,2%	49,6%	0,0%	0,020
Mujer	0,3%	46,4%	52,8%	0,5%	
Edad					
55-64 años	0,3%	41,1%	58,6%	0,0%	0,000
65-79 años	0,2%	46,1%	53,6%	0,2%	
80 y más años	0,4%	65,8%	32,9%	0,9%	
Sexo y edad					
Hombres de 55-64 años	0,2%	46,5%	53,3%	0,0%	0,000
Mujeres de 55-64 años	0,3%	38,3%	61,4%	0,0%	
Hombres mayores de 75 años	0,0%	60,1%	39,9%	0,0%	
Mujeres mayores de 75 años	0,4%	60,9%	37,4%	1,3%	
Estado civil					
Casado/a conviviendo	0,1%	43,6%	56,2%	0,1%	0,000
Otra situación	0,4%	54,3%	44,8%	0,5%	
Estado de salud					
Muy bueno y bueno	0,3%	43,9%	55,6%	0,1%	0,000
Regular	0,2%	57,7%	41,3%	0,8%	
Muy malo y malo	0,0%	66,8%	33,2%	0,0%	

Elizkizunei dagokienez, inkestatutako % 25,5ek maiztasuna aldatu egin dela nabaritu du, aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta, eta, hain zuzen, emakumeek jakinarazi dute beherakadarik handiena. Adinaren arabera, adin handiko pertsonak adierazi dute gehiago txikitu dela elizkizunetara joateko maiztasuna. Generoa eta adina batera aintzat hartuz gero, ikusiko dugu batez ere 75 urtetik gorako emakumeen artean txikitu dela. Etxetik kanpo egiten diren jardueretatik, elizkizunetara joatea da adin handiko emakumeek gehien egiten dutena.

Elizkizunetara joatea, profil soziodemografikoaren arabera

	Actos religiosos				p
	Sí, ha aumentado	No, sigue igual	Sí, ha disminuído	Ns/Nc	
Sexo					
Hombre	0,2%	80,5%	19,0%	0,2%	0,000
Mujer	0,2%	69,4%	29,7%	0,8%	
Edad					
55-64 años	0,4%	79,4%	19,6%	0,7%	0,000
65-79 años	0,1%	74,2%	25,3%	0,4%	
80 y más años	0,2%	64,8%	34,4%	0,5%	
Sexo y edad					
Hombres de 55-64 años	0,3%	82,1%	17,2%	0,3%	0,000
Mujeres de 55-64 años	0,1%	74,4%	24,9%	0,6%	
Hombres mayores de 75 años	0,0%	76,2%	23,8%	0,0%	
Mujeres mayores de 75 años	0,4%	60,3%	38,2%	1,1%	

COVID-19aren krisiak adineko pertsonak etxetik ateratzeko maiztasuna ere aldatu du; % 47k gutxiagotan irten dela dio, baina % 51k adierazi du ez duela hori aldatu, eta % 1,7k soilik esan du etxetik irteteko maiztasuna handitu duela. Gizonak osasun krisiaren aurreko garaian bezala irteten dira etxetik; emakumeek, berriz, gutxiagotan irten direla adierazi dute. Eskuarki, hala moduzko osasun egoera, osasun egoera txarra eta oso txarra duten pertsonak ere gutxiagotan irten direla adierazi dute. Izan ere, osasun egoera ahulagoa duten pertsonak zorrotzago jokatu dute, seguru asko, osasun gomendioak betetzen.

Etxetik irtetea, profil soziodemografikoaren eta osasun egoeraren arabera

	Salir de casa				p	
	Sí, ha aumentado	No, sigue igual	Sí, ha disminuido	Ns/Nc		
Sexo						
Hombre	1,8%	55,0%	43,2%	0,1%	0,001	
Mujer	1,7%	47,7%	50,2%	0,4%		
Edad						
55-64 años	2,4%	52,1%	45,2%	0,3%	0,079	
65-79 años	1,6%	50,3%	48,0%	0,1%		
80 y más años	0,7%	50,0%	48,7%	0,5%		
Sexo y edad						
Hombres de 55-64 años	1,9%	57,8%	40,1%	0,2%	0,002	
Hombres de 65-79 años	2,1%	51,6%	46,3%	0,0%		
Hombres de 80 y más años	0,5%	56,5%	43,0%	0,0%		
Mujeres de 55-64 años	2,9%	46,9%	50,0%	0,2%		
Mujeres de 65-79 años	1,3%	49,2%	49,4%	0,2%		
Mujeres de 80 y más años	0,8%	46,5%	51,8%	0,8%		
Salud						
Muy bueno y bueno	1,9%	54,0%	43,8%	0,2%		0,000
Regular	1,2%	44,2%	54,2%	0,4%		
Muy malo y malo	1,6%	36,3%	62,1%	0,0%		

GOGOBETETASUNA ETABAKARDA DE SENTIMENDUA

Gogobetetasuna

COVID-19aren krisiak gogobetetasun mailari ere eragin dio. Hain zuzen, galdetutako pertsonen % 20,5ek adierazi du haien gogobetetasun mailak okerrera egin duela.

Gogobetetasun maila nabarmen aldatzen da adineko pertsona gazteen artean, 55 eta 64 urtekoen artean, alegia; eta lehen aipatutako ohituretan izandako aldaketa da horren arrazoia, aldagai soziodemografikoak baino gehiago. Hortaz, senide eta lagunekiko harremanen maiztasuna aldatu dela sumatu eta etxetik gutxiagotan irten direla adierazi dutenek esan dute, proportzio handiagoan, beren gogobetetasun maila okerrera aldatu dela.

Aldaketak gogobetetasun mailan, aldagai soziodemografikoen eta ohituretan izandako aldaketen arabera

	Cambio en la frecuencia sentimiento de satisfacción				
	Sí, a mejor	No, sigue igual	Sí, a peor	Ns/Nc	p
Sexo					
Hombre	1,9%	77,2%	19,8%	1,1%	0,686
Mujer	2,1%	75,4%	21,1%	1,4%	
Edad					
55-64 años	3,0%	73,9%	22,6%	0,5%	0,000
65-79 años	1,7%	78,2%	19,1%	1,0%	
80 y más años	0,9%	76,5%	19,3%	3,3%	
Estado civil					
Casados	2,2%	77,0%	20,0%	0,8%	0,063
Otra situación	1,8%	75,2%	21,2%	1,8%	
Tipo de hogar					
Unipersonal	1,1%	74,9%	22,4%	1,6%	0,126
Con otros	2,3%	76,7%	19,9%	1,1%	
Cambio en la frecuencia de contacto familiares					
Sí, a mayor	3,5%	70,7%	24,8%	1,0%	0,000
No sigue igual	1,8%	80,6%	16,7%	0,9%	
Sí, a menor	1,6%	71,5%	25,0%	1,9%	
Cambio en la frecuencia de contacto amigos					
Sí, a mayor	2,6%	72,8%	24,7%	0,0%	0,000
No sigue igual	1,9%	80,1%	16,8%	1,1%	
Sí, a menor	1,9%	71,2%	24,9%	1,9%	
Cambio en la frecuencia salir de casa					
Sí, a mayor	10,4%	68,8%	18,8%	2,1%	0,000
No sigue igual	1,6%	83,7%	13,6%	1,1%	
Sí, a menor	2,2%	68,4%	28,2%	1,3%	

Bakardade sentimendua

Euskadin 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 25,7k bakarrik sentitzen dela adierazi du. Gainera, sentimendu hori areagotu egin da kasuen % 12,7tan. Bakarrik sentitzea lotuta dago generoarekin, egoera zibilarekin, etxe motarekin, senide eta lagunekiko harremanen maiztasuna aldatzearekin, eta etxetik irteteko maiztasuna aldatzearekin. Hala, ezkondata ez dauden, bakarrik bizi diren, eta COVID-19aren krisiaren ondorioz senide eta lagunekin gutxiagotan dauden eta etxetik gutxiago irteten diren emakumeek bakardade sentimendu handiagoa adierazi dute aurreko urtearekin alderatuta.

Aldaketak bakardade sentimenduan, aldagai soziodemografikoen eta ohituretan izandako aldaketan arabera

	Cambio en la frecuencia sentimiento de soledad				
	Ha aumentado	Sigue igual	Ha disminuido	Ns/Nc	p
Sexo					
Hombre	9,8%	87,1%	2,4%	0,6%	0,001
Mujer	14,9%	81,5%	2,7%	0,9%	
Edad					
55-64 años	11,9%	84,9%	3,0%	0,2%	0,057
65-79 años	12,9%	83,6%	2,6%	0,9%	
80 y más años	13,5%	83,4%	1,6%	1,5%	
Estado civil					
Casados	10,2%	86,6%	2,7%	0,6%	0,000
Otra situación	16,2%	80,5%	2,5%	0,9%	
Tipo de hogar					
Unipersonal	18,6%	78,7%	2,3%	0,4%	0,000
Con otros	10,6%	86,0%	2,6%	0,8%	
Cambio en la frecuencia de contacto familiares					
Sí, a mayor	16,9%	79,2%	3,7%	0,2%	0,000
No sigue igual	9,7%	87,6%	2,1%	0,7%	
Sí, a menor	15,6%	80,4%	2,8%	1,3%	
Cambio en la frecuencia de contacto amigos					
Sí, a mayor	16,0%	80,2%	3,6%	0,3%	0,003
No sigue igual	10,5%	87,0%	1,8%	0,7%	
Sí, a menor	14,7%	80,9%	3,5%	0,9%	
Cambio en la frecuencia salir de casa					
Sí, a mayor	18,8%	70,8%	10,4%	0,0%	0,000
No sigue igual	8,0%	89,1%	2,1%	0,7%	
Sí, a menor	17,3%	79,1%	2,9%	0,8%	

Funtsezko mezuak

Inkestan parte hartu duten 55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 1,8k adierazi du **COVID-19aren probetan positibo** eman duela krisiaren lehen hilabeteetan.

COVID-19aren krisiak eragin negatiboa izan du **osasunaren pertzepzioan**, bereziki pertsona ahulenen kasuan: emakumeak, alargunak, hezkuntza maila txikiko pertsonak eta diru sarrera txikiak dituztenak.

Krisiaren ondorioz **ase gabe geratu ziren osasun beharrek** 55 urteko eta gehiagoko biztanleen % 26,5i eragin zioten. Azken urtean mediku edo dentista bati kontsulta egin behar izan badiote ere, ez dute egin.

EBJak egiteko laguntza behar duten pertsonen **jasotako zaintzari** dagokionez, gehienek (% 92,8k) adierazi dute COVID-19aren krisiak ez duela aldatu laguntza horiek jasotzeko maiztasuna.

55 urteko eta gehiagoko pertsonen % 46,4ren ustez, COVID-19aren krisiak nabarmen aldatu du senide eta lagunekiko **harremanen maiztasuna**:

- Handitu egin da 55 eta 64 urte bitarteko emakumeen kasuan, seguru asko beste pertsona batzuk zaintzeko ardura dutelako.
- Murriztu egin da 65 eta 79 urte bitarteko adin tartean, seguruenik etxetik kanpoko jardueren maiztasunak behera egin duelako.
- Adin handiagoko pertsonen kasuan, maiztasun hori ez da aldatu, segur aski beste pertsona batzuen laguntzak jasotzen dituztelako.

Emandako zaintzen eragina:

- Gazteenen (55 eta 64 urte bitartekoen) kasuan, handitu egin da bilobak eta seme-alabak zaintzeko maiztasuna, maiztasuna handia zenean, bai eta adinekoak zaintzeko ere, maiztasuna txikia zenean.
- 65 eta 79 urte bitarteko adin tartetako pertsonentzat, txikitu egin da seme-alabak eta bilobak zein adineko senideak zaintzeko lanetan izandako inplikazioa.

Jarduerak egiteari dagokionez:

- Gazteenek (55 eta 64 urte bitartekoek) jarduera gutxiago egin dituzte etxetik kanpo, eta gehiago etxean.
- Adin handikoen (80 urte edo gehiagoen) kasuan, elizkizunek izan dute eragina batik bat, elizkizun gutxiagotara joan baitira. Hala ere, etxetik kanpoko eta etxe barruko jardueretan izan duten parte hartze orokorra ez da ia aldatu.

Jarduera mailaren eta harreman sozialen maiztasunaren beherakada **gogobetetasun** maila txikitzearekin lotzen da.

Eta **bakardade sentimenduan** izandako eragina honako hau da: bakarrik bizi diren emakumeen kopurua handitzea, senide eta lagunekiko harremana murriztu eta etxetik kanpoko irteera gutxiago egin baitute.

